2025eko azaroaren 13a

# Albiste eta informazio interesgarriak

## DATORREN OSTEGUNEAN, ABENDUAREN 18AN, EHPM-K MOBILIZAZIOAK BURUTUKO DITU GASTEIZEN ETA IRUÑEAN

Bost egun barru Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) erronka garrantzitsua du. Bi mobilizazio deitu ditugu, bata Gasteizen eta bestea Iruñean. Arabako hiriburuan manifestazioa 11:00etan abiatuko da Bilbo plazatik, eta hiriko hainbat kale zeharkatuko ditu ondoren, Legebiltzarraren aurretik igaro eta handik hurbil dagoen Katedral Berrian amaituko da. Nafarroako hiriburuan elkarretaratzea egingo dute, 11:30ean, Legebiltzarraren aurrean, eta talde politiko guztiei zuzendutako idazki bat erregistratuko dute.

Arrazoiak antzekoak dira: gutxieneko pentsioen (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak) osagarri bat aldarrikatzea, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) parekatzeko, eta aitortza eta aplikazioa norbanakoari egitea. Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako egoerak neurri batean desberdinak izan.

EAEn, EAJk eta PSEk atzera bota zuten HEL, Voxen babesarekin, eta hilaren 23an EAJren eta PSEren babesarekin soilik onartuko diren 2026ko aurrekontuetan, ez da partida ekonomikorik egongo gutxieneko pentsioak osatzeko, ezta Nafarroan 2026rako adostu dutenaren beste osatzeko ere. Horregatik, EAJren eta PSEren jokabide antidemokratikoa salatzeaz gain, HEL Gasteizko Legebiltzarrean ez eztabaidatzea eta ez bozkatzea arbuiatuko dugu, baita pentsio baxuak eta miseriazkoak dituzten 90.000 pentsiodun baino gehiagorekiko, gehienak emakumeak direlarik, izan duten sentsibilitate falta eta erakutsi dieten mespretxu soziala ere.

Nafarroan, Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioari esker, gutxieneko pentsioek 1.100 euroraino iristeko besteko osagarria izango dute, 14 ordainsaritan. Nafarroako eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak uste dugu urrats positiboa dela, baina muga batzuekin, osagarri horren aitorpena familia unitatearen diru sarreren mende baitago, eta ez baita iristen LGSren egungo 1.184 eurora (2026rako altuagoa izango dela aurreikusten da). Horregatik, pentsioen osagarria norbanakoentzat izan behar duela eta LGSrekin parekatzea eskatzen jarraituko da Nafarroan. Halaber, osasun-arloan eta arlo soziosanitarioan eta mendekotasuna duten pertsonei eta zuzeneko arreta eskaintzeko zerbitzuetan, aurrekontu-baliabide gehiago bideratzea eskatuko dute.




**Mobilizazio horiekin dugun erronka garrantzitsua da**

Oso garrantzitsua da ahalik eta pentsiodun gehienek parte hartzea mobilizazio hauetan, EAEko eta Nafarroako gobernuei eta Legebiltzarretako talde politikoei aldarri handi eta ozen bat helarazi behar baitiegu, eskatzen dugun gutxieneko pentsioetara heltzeko diru-osagarria arrazoizkoa, bidezkoa eta presazkoa dela gogoraraziz.

Hedabide batzuek ezarri diguten isilaldi informatiboaren aurrean, EITB bezalako entitate publikoak barne, behar beharrezkoak diren era bateko eta besteko propaganda- eta sozializazio-ekimenak bultzatzen ari gara. Besteak beste, igandean Durangoko Azokaren atarian egindako ekimena. Bertan, eskualdeko talde batek, pankarta baten laguntzarekin hilaren 18ko mobilizazioei buruzko esku-orriak banatu zituzten. Bestalde, dagoeneko hamabost bat autobus kontratatu dira Bizkaiko eta Gipuzkoako pentsiodunak bertaratzeko, eta hauei garraio publikoan eta autoetan joango direnak gehitu behar zaizkie.

Horrelako mobilizazio batzuetarako egunik aproposenak ez izan arren, zalantzarik gabe egun horretan Hego Euskal Herriko milaka batzuk mobilizatuko gara.

### Itxialdia Gasteizen hilaren 17an, 18ko manifestazioa iragartzeko eta animatzeko

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko 50 lagunek baino gehiagok uste da parte hartuko dutela asteazkenean, hilak 17, Gasteizko Alde Zaharreko Koroatze elizan egingo den 24 orduko itxialdian. Goizeko 10:00etan sartuko dira, eta hurrengo egunean manifestazioa hasi aurretik amaituko dute. Itxialdiko tresneriarekin joango dira manifestazioaren buruan. Asteazkeneko 11:00etan prentsaurrekoa egingo da, itxialdiaren arrazoiak azaltzeko, hurrengo egunean Gasteizen eta Iruñean egingo diren mobilizazioen berri eman eta gizartea sentsibilizatzeko helburuarekin. Itxialdian pentsiodunen munduarekin eta haren behar sozialekin zerikusia duten gai interesgarriei buruzko hitzaldiak eta eztabaidak ere egongo dira.




Tasioren txokoa

## HEGO EUSKAL HERRIKO 219.000 PENTSIODUNEK LANBIDE ARTEKO GUTXIENEKO SOLDATATIK (LGS) BEHERAKO PENTSIOAK JASOTZEN DITUZTE

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan 168.000 pentsiodunek ezarrita dagoen Lanbide arteko Gutxieneko soldataren, hau da, 1.184 euro baino gutxiagoko pentsioa jasotzen dute. Eta Nafarroan 51.000. Horren batuketa eginez gero, Hego Euskal Herrian orotara dauden 673.000 pentsiodunetatik 219. 000 pentsiodunek LGSk agintzen duen gutxieneko soldatapetik kobratzen dute beraien pentsioa, ia heren batek (% 32,5).

Hedabide batzuen arabera, bereziki Vocento Taldekoek, egunero-egunero nabarmentzen dute Hego Euskal Herriko pentsioak, batez ere EAEkoak, altuak direla, Espainiar Estatuko batez bestekoen oso gainetik daudela, eta Gizarte Segurantzara egiten diren kotizazioekin alderatzen baditugu defizit oso handia sortzen dela.
Erabiltzen dituzten argudioak justifikatzeko, beti egiten dute gauza bera, pentsioen batez besteko datu orokorrak erabiltzen dituzte, baina ahaztu egiten zaie, adibidez, pentsioak kalkulatzeko orduan langileek beraien lan-bizitza osoan egin dituzten ekarpenak kontuan hartzen direla; baita EAEn eta Nafarroan pentsioa kobratzen duten hiru lagunetik ia batek LGSren azpitik edo oso azpitik kobratzen duela, bereziki emakumeek.

Oraindik ez dira publiko egin gutxieneko pentsio kontributiboen eta ez-kontributiboen igoeraren ehuneko zehatzak. Argitaratzen direnean, mundu guztiari jakinaraziko dizkiogu. Ezarrita dagoen bezala, igoerak %2,7tik gorakoak izango dira (2025ean gutxieneko pentsio kontributiboak %6 igo ziren, eta aplikazio orokorrekoak, berriz, %2,8). Baina, hala eta guzti ere, LGSk ezarritako kopurutik oso urrun geratuko dira, eta are gehiago ez-kontributiboak.

2025ean bere ardurapean ezkontiderik ez duen 65 urtetik gorako pentsiodunentzat gutxieneko pentsio kontributiboa hilean 874 eurokoa izan da (12.241,60 urtean).

Gutxieneko pentsioak LGSren parekoak eta norbanakoak izateko borroka luzea eta gogorra izango da. Nafarroan, 2026rako gutxieneko pentsioak 1.100 euroraino osatzea adostu dute, 14 ordainsaritan, baina baldintza eta muga batzuekin. EAEn egoera okerragoa da, HEL baztertu egin da, eta datorren urterako aurrekontuetan ez da gutxieneko pentsioen hobekuntzarik aurreikusten. Horregatik, hilaren 18an Gasteizen eta Iruñean egingo diren eskakizun horren aldeko mobilizazioek zaratatsuak eta indartsuak izan behar dute.



## 2026AN EAE-KO MUTUALISTEI PENTSIOETAN EGINDAKO ATXIKIPENEN ZUZENKETA EGINGO ZAIE

Aurreko egunetan jakitera eman denez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru ogasunek urtea amaitu baino lehen burutuko dute Gizarte Segurantzari datuak eskualdatzeko prozesua, mutualistak izan ziren pentsiodunei 2026ko urtarriletik aurrera PFEZren atxikipena egokitzeko.

Egokiktzapen horren arrazoia zera da, 2025ean Gizarte Segurantzak pentsioaren zenbateko osoaren gainean kalkulatu zituela atxikipenak, eta orain urtarriletik aurrera erregularizatu nahi dira egin ziren gehiegizko atxikipenak.

Kalkulatzen dute mutualista izan ziren 260.000 pertsona inguruři eragingo diela Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), eta, horrela, haien prestazio garbia, batez beste, 39 euro inguru gehituko dela hilean (urtean 550).




## EAE-KO 2026RAKO OSASUN AURREKONTU KONTINUISTAK

OPA Osasun Publikoaren Alde Herri Plataformak argitaratutako ohar batean adierazi du, Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta onartutako Osasun Ituna OPA Plataformak eta hainbat erakunde politiko eta sozialek arbuiatu egin zutela, arrunkeriaz beterik dagoelako, eta inolako konpromiso neurgarri eta zehaztasunik ez duelako. Halaber, Jaurlaritzak 2026rako aurkeztu dituen aurrekontuek osasun sistema publikoaren pribatizazioa sendotu egiten duela diote, eta ez duela urrats bat bera ere ematen Osakidetzak dituen egiturazko arazoak konpontzeko.

Nabarmendu dute 2026rako osasun aurrekontua 5.327 milioi eurokoa izango dela. Osakidetzak 4.276

milioi jasoko ditu, %80, honek esan nahi du 46 milioi galtzen dituela 2025eko itxierarako zenbatetsitako gastuarekiko. Pribatizatzen jarraitzen da, eta ez da ikusten pribatizatuta dauden zerbitzuak lehengoratzeko borondaterik, Lehen Mailako Arreta ahultzen duen eredu ospitalozentrista finkatzen da, eta ez dira konpontzen langileen ihesa errazten duten plantillaren arazoak eta egoera prekarioak. Aurrekontu eskasa da, eta Barne Produktu Gordinarekiko (BPG) duen pisua iazko %5,7tik %4,97ra jaitsi da, Europako batez bestekotik oso urrun (%7,2). 2.385 milioi euroko aldea.

Era berean, salatu dute osasun pribatuarekin egindako itunak 294 milioira iristen direla, eta horietako asko urte anitzeko konpromisoen bidez blindatu direla 2030. urtera arte. Horri gehitu behar zaio kanpora ateratako zerbitzu "ez-sanitarioetara" bideratutako beste 250 milioi. Guztira, 500 milioitik gora, aurrekontu publikoaren %11 inguruk sektore pribatuan amaituko du. Sailburuak aipatzen duen %6tik oso urrun.




Gaineratzen dute, Osasun Publikoak hartzen duen diru-kopurua ozta-ozta heltzen dela aurrekontuaren %1,54ra, gomendatutako %5etik urrun. Beraz, ez da jardungo berebiziko garrantzia duten osasun sozialeko, generoko edo ingurumeneko baldintzatzaileetan. Lehen Mailako Arretako gastu espezifikoa ez da zehaztu ere egiten. Ez da lehentasun bat, eta gardentasun falta horrek ezkutatzen du jasaten duen azpifinantzaketa kronikoa. Ez da aldaketa esanguratsurik planteatzen, langileen behin-behinekotasuna %50era iristen baita, Europar Batasunak eskatutako %8tik urrun.

Bestalde, adierazi dute aurrekontu hazkunderik handiena azpiegituretara eta ekipamenduetara doala, 202 milioirekin (+%23), adreilua, industria elektro-medikoa eta eredu ospitalozentrista finkatuz. Farmaziako gastuak, batez ere ospitalekoak, gora egiten jarraitzen du industria farmazeutiko pribatuen mesedetan.

Eta prebentzioaren atalean zoster herpesaren aurkako txertaketa murriztu egiten da, eta bularreko minbiziaren behaketa 74 urtera arte zabaltzeari uko egiten zaiola eta 45 urtera luzatzen dela 2027ra arte.

Amaitzeko, nabarmendu dute 2026ko Osasun Aurrekontuek interes pribatuak lehenesten dituen eredu neoliberal baten jarraipena direla, herritarrek jasan behar dituzten itxaron zerrenda luzatzeak, langile gabeziak, larrialdi kolapsatuak eta Osakidetzaren kalitatearen galera handituko dutenak. Eta benetan osasun publikoa bultzatuko duen eredu berri baten norabidea hartu beharra dagoela, eta hori lortzeko ezinbestekoa dela herritarren mobilizazio zabal, bateratu eta aktibo bat.

## OPA-EN MOBILIZAZIOAK OSASUN PUBLIKOAREN DEFENTSAN

Durangoko DOPAk (herri honetako herritarren osasun publikoaren aldeko plataforma) protesta kontzentrazio handia egin zuen (200 pertsona) ostegunean, hilak 11, 19:00etan, herriko Santa Maria elizpean.

Gabonetan, Aste Santuan eta udan urtero errepikatzen den egoeraren aurrean ahotsa altxatzeko egin dute. Egoera horrek Durangaldean osasun-zerbitzuak murriztea dakar, herritarren arretari larriki eragiten dioten beste herri batzuetan bezala. Lehen Mailako Arretan gaur egun dauden zazpi eguneko atzerapenak salatu dituzte, Gabonetan bi hilabete arte luza daitezkeenak; hainbat espezialitatetako itxaronaldi luzeak, hala nola 10 hilabete Urologian edo urtebete baino

gehiago Traumatologian; eta Osakidetzak ez dituela langileen oporrak eta bajak estaltzen.

Bestalde, OPA elkarteek elkarretaratzeak deitu dituzte astearterako, hilak 16, EAEko hainbat herritan. Ekimen honek jarraipena ematen die hainbat herritan osasun-zentroetan jasaten ari diren murrizketengatik egiten ari diren protestei.

**HORI SALATZEKO, ELKARRETARATZE HAUEK DEITU DITUZTE:**

- **Donostia**: abenduaren 15ean, astelehena, 18:30ean, Egiako merkatuan abenduaren 16an, asteartea, 12:00etan, Groseko anbulatorioan.
- **Gasteiz**: abenduaren 16an, asteartea, 18:00etan kontzentrazioa eta kalejira Andre Maria Zuriaren plazan.
- **Barakaldo**: abenduaren 16an, asteartea, 12:00etan, San Eloy Ospitalean.
- **Sestao**: abenduaren 16an, asteartea, 12:00etan, Markonzagako anbulatorioan.
- **Elorrio**: abenduaren 16an, asteartea, 12:00etan, Osasun Zentroan.
- **Larrabetzu**: abenduaren 19an, ostirala, 19:00etan, Osasun Zentroaren aurreko plazan
- **Zornotza:** abenduaren 16an, asteartea, 12:00etan, Osasun Zentroan.

## GAZA ETA PALESTINAREKIKO LAGUNTZA ETA ELKARTASUNAREKIN JARRAITU BEHARRA

Gaizki deitutako bake akordioaren ondoren, Israelek Palestinako herriaren aurka, batez ere Gazan, egiten dituen eraso bortitzenak mugatuta, bertan gertatzen ari denari buruzko berri eta albistegiak nabarmen murriztu dira. Hala ere, urriaren 10ean su-etena hasi zenetik, 375 pertsona baino gehiago hil dira, gehienak emakumeak eta haurrak, Israelgo armadaren bonbardaketa eta tiroketen ondorioz, eta laguntza humanitarioaren sarreraren blokeoak –edo muga handiek– eragotzi egin du gazatarren oinarrizko beharrak asetzea.

Horrek guztiak esan nahi du Gazako egoeraren larritasunak, baina baita Zisjordaniakoak ere, bere larritasun guztiarekin jarraitzen duela, eta Netanyahuren gobernuak, AEBren babesarekin eta mendebaldeko herrialde askoren laguntzarekin, "bake planaren" negoziazioen bigarren faserako planteatzen duen alternatiba bakarra genozidioarekin eta palestinar herriaren erabateko errendizioarekin jarraitzea dela.

Arrazoi horiengatik, beharrezkoa da Palestinako herriak pairatzen jarraitzen duen egoeraren nazioarteko salaketari eustea eta laguntza- eta elkartasun-ekimenekin jarraitzea. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da joan den igandean Durangoko Azokaren zabalgunearen aurrean egin zen ekitaldia. Ordu erdiz, eguerdiko 2:00etatik 2:30era, ateak itxi ziren, eta milaka pertsona bildu ziren kanpoan, horien artean Azokako pertsona eta kultur talde erakusle guztiak, bertaratutako jende asko bezala. Elkartasunarekin jarraitzeko beharra nabarmendu zuten, genozidioari ezetz esanez, "Ez zaituztegu bakarrik utziko" esanez.



## EL PRÓXIMO JUEVES DÍA 18 MOVILIZACIONES DEL MPEH EN GASTEIZ E IRUÑA

Dentro de cinco días el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) tenemos un reto importante. Hemos convocado sendas movilizaciones en Gasteiz e Iruña, en la capital alavesa con una manifestación que partirá a las 11:00 de la plaza Bilbao, recorrerá diversas calles de la ciudad, pasará por delante del Parlamento y culminará a poca distancia de éste en la Catedral




Nueva. En la capital navarra se llevará a cabo una concentración a las 11:30 ante su Parlamento y registrarán un escrito dirigido a todos los grupos parlamentarios.

Los motivos son similares, reivindicar un complemento a las pensiones mínimas (contributivas y no contributivas) equiparándolas al Salario Mínimo Interprofesional (SMI) y ser reconocido y aplicado de un modo individual. Aunque las situaciones en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) y en Navarra son parcialmente diferentes.

En la CAV, la ILP fue rechazada por el PNV y el PSE, con el apoyo de Vox, y en los presupuestos para 2026, que se aprobarán el día 23, con el apoyo exclusivo del PNV y PSE, no habrá ninguna partida económica para complementar las pensiones mínimas, ni siquiera lo acordado en Navarra para el 2026. Por ese motivo, no solo se denunciará el comportamiento antidemocrático del PNV y PSE rechazando que la ILP se debatiera y votada en el Parlamento de Gasteiz, sino su falta de sensibilidad y desprecio social hacia las más de 90.000 personas pensionistas, en su mayoría mujeres, con pensiones bajas o de miseria.

En Navarra, merced al acuerdo entre el Gobierno y EH Bildu, se llevará a cabo el complemento a las pensiones mínimas hasta 1.100 euros en 14 pagas. El Movimiento de Pensionistas de Navarra y de Euskal Herria estimamos que se trata de un paso positivo, pero con ciertas limitaciones, pues el reconocimiento de ese complemento está condicionado a los ingresos de la unidad familiar y no alcanza la cifra de los 1.184 euros actuales del SMI (que previsiblemente será más alta para el 2026). Es por ello que la petición en Navarra será también que el complemento a las pensiones se equipare al SMI y con carácter individual. Asimismo, pedirán que se destinen más recursos presupuestarios en el campo sanitario y sociosanitario de atención a la dependencia y a los servicios de atención directa a las personas.

### El reto que tenemos con estas movilizaciones es importante

La participación del mayor número posible de pensionistas es de sumo interés, pues tenemos que hacer llegar a los gobiernos y grupos políticos parlamentarios de la CAV y Navarra un fuerte y sonoro aldabonazo, recordándoles que el complemento a las pensiones mínimas que demandamos es razonable, justo y de urgente solución.

Estamos impulsando diversas iniciativas de propaganda y socialización, necesarias e

imprescindibles ante el apagón informativo que sufrimos por parte de algunos medios de comunicación, incluso públicos, como EITB. Entre otras iniciativas, la llevada a cabo a las puertas de la Azoka de Durango el domingo, donde un grupo de compañeros/as de la comarca, con una pancarta a la cabeza, repartieron octavillas referidas a las movilizaciones del día 18, con una buena acogida de los y las asistentes a la Azoka. Por otro lado, ya se han contratado una quincena de autobuses para trasladar a los/las pensionistas de Bizkaia y Gipuzkoa, a los que se sumarán compañeros/as de diversas localidades que utilizarán transporte público y coches.

A pesar de no ser las mejores fechas para unas movilizaciones de este tipo, no cabe duda de que ese día nos movilizaremos varios miles de pensionistas de Hego Euskal Herria.

**Encierro en Gasteiz el día 17, para publicitar y animar la manifestación del 18**

Más de 50 compañeros/as de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia tomaran parte en el encierro de 24 horas que se llevará a cabo el miércoles día 17 en la iglesia de la Coronación, en el Casco Viejo de Gasteiz. Se iniciará a las 10:00 de la mañana y culminará al día siguiente antes del inicio de la manifestación, a la que acudirán con los pertrechos del encierro y encabezarán la misma. A las 11:00 del miércoles se dará una rueda de prensa explicando los motivos del encierro como otra iniciativa más de sensibilización y apoyo a las movilizaciones del día siguiente en Gasteiz e Iruña. En el curso del encierro se celebrarán también algunas charlas y debates de temas de interés relacionados con el mundo pensionista y sus necesidades sociales.




El rincón de Tasio

## 219. 000 PENSIONISTAS EN HEGO EUSKAL HERRIA PERCIBEN PENSIONES POR DEBAJO DEL SMI

En la actualidad, en la Comunidad Autónoma Vasca 168.000 pensionistas perciben pensiones por debajo de los 1.184 euros mensuales del Salario Mínimo Interprofesional. Y en Navarra 51.000. Esto hace una suma de 219.000 en el conjunto de Hego Euskal Herria, donde se contabilizan unos 673.000 pensionistas, por lo que quienes perciben pensiones por debajo del SMI, representan casi un tercio (32,5%).

Por parte de algunos medios de comunicación, en especial del Grupo Vocento, día tras día vienen destacando que las pensiones en Hego Euskal Herria –sobre todo en la CAV– son altas, que están situadas muy por encima de las medias del Estado español y que el déficit que generan en relación a los ingresos por cotizaciones a la Seguridad Social es muy elevado.

Para tratar de dar una imagen que avale sus opiniones, siempre utilizan el dato general de la media de las pensiones, obviando, por un lado, que las pensiones vienen dadas por las cotizaciones que los trabajadores/as han aportado a la Seguridad Social lo largo de su vida; por otro, que en la CAV y Nafarroa casi una de cada tres personas percibe una pensión por debajo –o muy por debajo– del SMI, en especial mujeres.

Aún no se han hecho públicos los porcentajes concretos de subida de las pensiones mínimas contributivas y de las no contributivas. En cuanto se

publiquen, los pondremos en conocimiento de todo el mundo. Tal como está establecido, las subidas serán superiores al 2,7% (en 2025 las pensiones mínimas contributivas se incrementaron un 6% mientras que las de aplicación general lo hicieron en un 2,8 %), pero en todo caso quedarán muy alejadas de la cifra del SMI y aún mucho más las no contributivas. En 2025 la pensión mínima contributiva para una persona jubilada mayor de 65 años, sin cónyuge a cargo, ha sido de 874 euros mensuales (12.241,60 anuales).

La pelea porque las pensiones mínimas sean equiparables al SMI, y que tengan un carácter individual, va a ser larga y costosa. En Navarra se ha acordado complementar las pensiones mínimas para 2026 hasta 1.100 euros en 14 pagas, pero con algunas condiciones y limitaciones. En la CAV la situación es peor, se ha rechazado la ILP y en los presupuestos para el próximo año no se contempla ninguna mejora para las pensiones mínimas. Las movilizaciones del día 18 en Gasteiz e Iruña deben constituir otro sonoro aldabonazo en apoyo de esa demanda.




## CORRECCIÓN DE LAS RETENCIONES EN LAS PENSIONES EN 2026 A LOS/LAS MUTUALISTAS DE LA CAV

Según se ha hecho público estos días atrás, las haciendas forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa completarán antes de fin de año el traspaso de datos a la Seguridad Social para poder ajustar las retenciones del IRPF en las pensiones desde enero de 2026 a las personas que fueron mutualistas.

Este ajuste se debe a que durante 2025 la Seguridad Social calculó las retenciones sobre el importe total de la pensión, reteniendo cantidades en exceso que ahora se pretenden regularizar desde enero.

Calculan que afectará a unas 260.000 personas en el total de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) que fueron mutualistas, y que de este modo verán incrementada su prestación neta, de media unos 39 euros mensuales (550 anuales).




## PRESUPUESTOS CONTINUISTAS DE SALUD PARA 2026 EN LA CAV

En un comunicado hecho público por las OPAs (Plataformas ciudadanas en Defensa de la Sanidad Pública) manifiestan que el Pacto Vasco de Salud impulsado y aprobado por el Gobierno Vasco fue rechazado por las OPAs y numerosas entidades políticas y sociales, y que está plagado de generalidades, sin compromisos medibles y concretos. Asimismo, que los presupuestos que ha presentado el Gobierno para 2026 consolidan la privatización del sistema público de salud y no

avanzan en la resolución de ninguno de los problemas estructurales de Osakidetza.

Destacan que el presupuesto sanitario para 2026 será de 5.327 millones de euros. Osakidetza recibe 4.276 millones, el 80 %, y pierde así 46 millones respecto al gasto estimado al cierre de 2025. La privatización avanza y no existe voluntad de revertir los servicios ya privatizados, se apuntala el modelo hospitalocentrista que debilita la Atención Primaria y no se resuelven unas plantillas insuficientes y precarias que favorecen la huida de personal. Es un presupuesto insuficiente y su peso respecto del PIB baja del 5,7 % del año pasado, al 4,97 %, muy lejos de la media europea (7,2%). Nos separan 2.385 millones de euros de ella.

Denuncian, asimismo, que los conciertos con la sanidad privada alcanzan los 294 millones, muchos blindados hasta el año 2030 mediante compromisos plurianuales. A ello se suman otros 250 millones destinados a servicios “no sanitarios” externalizados. En total, más de 500 millones, alrededor del 11% del presupuesto público, terminan en el sector privado. Muy lejos del 6% que cita el consejero.

Y que la Salud Pública apenas alcanza el 1,54% del presupuesto, lejos del 5% recomendado. No se actuará por tanto en los determinantes de salud sociales, de género o ambientales. El gasto específico en Atención Primaria ni siquiera se detalla. No es una prioridad y esta falta de transparencia oculta la infrafinanciación crónica a la que está sometida. No se plantea cambio significativo alguno con la reducción de la eventualidad del personal que alcanza el 50%, lejos del 8% exigido por la Unión Europea.

Por otro lado, señalan que el mayor incremento presupuestario va a infraestructuras y equipamientos, con 202 millones (+23%), apuntalando el ladrillo, la industria electro-médica y el modelo hospitalocentrista. El gasto farmacéutico, en especial el hospitalario, sigue aumentando para regocijo de las industrias farmacéuticas privadas.

Y que en el capítulo de prevención se reduce la vacunación frente al herpes zóster y se renuncia a ampliar el cribado del cáncer de mama hasta los 74 años y se retrasa su ampliación a los 45 años hasta el 2027.

Concluyen resaltando que los Presupuestos de Salud de 2026 son la continuidad de un modelo neoliberal que prioriza intereses privados mientras la ciudadanía sufre largas listas de espera, carencia de personal, urgencias saturadas y pérdida de la calidad de Osakidetza. Y que se necesita un giro radical hacia un modelo exclusivamente público, para cuyo logro se hace imprescindible una movilización amplia, unitaria y activa de la ciudadanía.

## MOVILIZACIONES DE LAS OPAS EN DEFENSA DE LA SANIDAD PÚBLICA

DOPA de Durango (Plataforma ciudadana de esta localidad en defensa de la sanidad pública) llevó a cabo una nutrida concentración (200 personas) de protesta el jueves día 11, a las 19:00, en el Pórtico de Santa Maria del pueblo.

Lo hicieron para alzar la voz ante la situación que se repite cada año durante la Navidad, Semana Santa y verano, que trae consigo la reducción de servicios sanitarios en Durangaldea –al igual que en otras localidades– que afecta gravemente a la atención ciudadana. Denunciaron las demoras actuales de siete días en Atención Primaria y que podrían aumentar hasta los dos meses en las navidades; las largas esperas en diversas especialidades, como los 10 meses en Urología o más de un año en Traumatologia; y que Osakidetza no cubre las vacaciones y bajas de personal.



Por otro lado, las OPAs han convocado concentraciones para el martes día 16 en diversas localidades de la CAV. Esta iniciativa viene a dar continuidad a las protestas que se vienen sucediendo en varios pueblos por los recortes que vienen sufriendo en sus centros de salud.

## PARA DENUNCIARLO HAN CONVOCADO LAS SIGUIENTES CONCENTRACIONES:

- **Donostia:** lunes 15 diciembre a las 18:30 horas en el mercado de Egia
  martes 16 diciembre a las 12 horas en el ambulatorio de Gros.
- **Gasteiz:** martes 16 diciembre a las 18 horas con kalejira en plaza Virgen Blanca
- **Barakaldo:** martes 16 de diciembre a las 12 horas en el Hospital de San Eloy.
- **Sestao**: martes 16 de diciembre a las 12 horas en el Ambulatorio de Markonzaga.
- **Elorrio:** martes 16 diciembre a las 12 horas en el Centro de Salud.
- **Larrabetzu:** viernes 19 diciembre a las 19 horas en la plaza frente al Centro de Salud.
- **Zornotza:** martes 16 diciembre a las 12 horas en el Centro de Salud.

## NECESIDAD DE CONTINUAR CON EL APOYO Y SOLIDARIDAD CON GAZA Y PALESTINA

Con la limitación de las agresiones más cruentas de Israel contra el pueblo palestino, sobre todo en Gaza, tras el mal llamado acuerdo de paz, las noticias e informativos sobre lo que allí continúa sucediendo se han reducido considerablemente. Sin embargo, desde el inicio del alto el fuego el 10 de octubre, más de 375 personas, en su mayoría mujeres y niños/as han muerto por los bombardeos y tiroteos del ejército israelí, y el bloqueo –o grandes limitaciones– a la entrada de la ayuda humanitaria está impidiendo que se cubran las necesidades básicas de la población gazatí.

Todo esto significa que la gravedad de la situación en Gaza, pero también en Cisjordania, permanece con toda su gravedad, y la única alternativa que plantea el gobierno de Netanyahu, con el apoyo de EEUU y la colaboración de buena parte de los países occidentales, para la segunda fase de las negociaciones del "plan de paz", es continuar con el genocidio y la rendición total del pueblo palestino.

Por estos motivos es preciso mantener la denuncia internacional de la situación que continúa padeciendo el pueblo palestino y seguir con las iniciativas de apoyo y solidaridad. En este sentido, es de resaltar el acto que se llevó a cabo el pasado domingo ante la explanada de la Azoka de Durango. Durante media hora, de 2:00 a 2:30 del mediodía, se cerraron sus puertas, y miles de personas se concentraron en el exterior, entre ellas todas las personas y colectivos culturales expositoras de la Azoka como mucha gente asistente a la misma. Destacaron la necesidad de continuar con la solidaridad, decir con fuerza no al genocidio, concluyendo con: "No os dejaremos solos ni solas".

